

ZALDIBIKO UDALA*Iragarkia*

Zaldibiko Udalbatzarrak, 2010eko ekainaren 10ean egindako osoko bilkuran, erabaki zuen haserako onespina ematea Zaldibian hileta eta omenaldi zibilak egiteko ordenantzari, jendeurreko epea pasa onodoren erreklamaziorik ez bada ezartzen onspen hau behin betikoa izango dela esanez.

Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, onartutako testua argitaratzen da.

Erabakiak amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da: Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, bi hilabete epean, iragarkia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita; egoki irizitako beste edozein errekurtso jartzeari utzi gabe.

Aplikatzekoa den legeria: Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldaturia) 116. eta 117. artikuluetan; eta uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzitarako Eskumena arautzen duena, 46. artikuluan xedatutakoa

Zaldibia, 2010eko abenduaren 16a.—Juan Ramon Nazabal Garmendia, Kudeaketa Batzordeko Lehendakaria. (14543)

ERANSKINA

ZALDIBIAN HILETA EDO OMENALDI ZIBILAK EGITEKO ORDENANTZA**ATARIKOA**

Estatu ez-konfesional eta laiko batean, erakundeek pertsonen eta elkarten askatasun ideologiko eta erlijiosoa eta gurtzarako askatasuna bermatu behar dutela gauza jakina da gizartean, eta horretarako muga bakarra legeak ezartzen duen ordena publikoa errespetatzeko beharra da. Bestalde, gure gizartean aniztasun ideologikoa, erlijiosoa eta kulturala da nagusi, gizarte plurala baita, eta ohituren eta ekintza sozialen adierazpenak etengabe ari dira aldatzen.

Hil ondorengo hileta edo omenaldi zibilak egiteko behar soziala erlijiorik gabe bizitzea aukeratu duten herritarrei zere monia duina eta pertsonala eskaintzeko beharretik sortu da, herritar horiek bizitza ulertzeko duten modua errespetatzeko.

Gure gizartean edo herrian bertan elkarren ondoan bizi diren erlijioek hildakoei agur esateko liturgia-ekitaldiak egiteko toki edo tenpluak dituzten bezala, Zaldibiako Udalak gizartean gero eta eskaera handiagoa duen behar bati erantzun behar dio.

Ordenantza honen helburua, beraz, Zaldibiako gizarte zibila osatzen duten familiek, adiskideek, erakundeek edo taldeek beren hildakoak omentzeko edo horiei agurtzeko egin nahi dituzten ekitaldiak baimentzeko arauak ematea da, hala, pertsona horien ekarpenak edo balio etikoak edota gizatiarrak onartzeko.

AYUNTAMIENTO DE ZALDIBIA*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento de Zaldibia, en sesión celebrada el 10 de junio de 2010, acordó aprobar inicialmente la ordenanza para la celebración de funerales u homenajes civiles por fallecimiento en Zaldibia. Dicho acuerdo se elevará a definitivo en caso de que no hubiera reclamaciones durante el transcurso del período de información pública.

Se publica el texto acordado en cumplimiento del Artículo 70.2 de la Ley de las Bases del Régimen Local.

Este acuerdo pone fin a la vía administrativa. Contra el mismo se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, y todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Legislación aplicable: Artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero; y Artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Zaldibia, a 16 de diciembre de 2010.—El Presidente de la Comisión Gestora, Juan Ramon Nazabal Garmendia. (14543)

ANEXO

ORDENANZA PARA LA CELEBRACIÓN DE FUNERALES U HOMENAJES CIVILES POR FALLECIMIENTO EN ZALDIBIA**PREÁMBULO**

Como es conocido por la sociedad en su conjunto, en un Estado aconfesional y laico, las instituciones deben garantizar la libertad ideológica, religiosa y de culto de las personas y comunidades sin más limitación que la necesaria para mantener el orden público de acuerdo con la ley. Asimismo, es conocida la diversidad ideológica, religiosa y cultural de nuestra sociedad, plural y en transformación constante en cuanto a la manifestación de sus costumbres y actos sociales.

La realización de funerales u homenajes civiles por fallecimiento nace de la necesidad social de ofrecer una ceremonia digna y personal a aquellas ciudadanas y ciudadanos que han escogido vivir sin la religión, de conformidad a cómo la persona difunta concebía la vida.

Así como las distintas religiones que conviven en nuestra sociedad y en nuestro propio pueblo tienen lugares o templos donde realizar sus actos litúrgicos de despedida a sus difuntos, el Ayuntamiento de Zaldibia tiene la obligación de dar respuesta a una necesidad social cada día más demandada.

La presente ordenanza pretende, por tanto, regular la autorización y celebración que familiares, amistades, organizaciones y/o entidades que componen la sociedad civil de Zaldibia quieran realizar a sus difuntos como homenaje o despedida a su persona, reconocimiento a sus aportaciones comunitarias o valores éticos y/o humanos.

I. KAPITULUA
XEDEA

1. artikulua.

Ordenantza honen xedea Zaldibiako udalerrian hildakoei hileta ospakizun edo omenaldi zibilak egiteko udal lokalen edo espazio publikoaren erabilera eta baimena arautzea da.

II. KAPITULUA
BAIMENA

2. artikulua.

Alkateak edo hori ordezkatzuko duen zinegotziak hileta edo omenaldi zibiletarako gordetako espazioak erabiltzea baimendu ahal izango du, betiere, senitartekoak edo dagokionak Zaldibiako Udaleko erregistrora bidali beharreko agiriak jaso ondoren.

III. KAPITULUA
PROZEDURA HASTEAN

3. artikulua.

Hileta edo omenaldi zibilak egiteko eskaerak Zaldibiako Udaleko Alkatetzara zuzenduko dira, eta azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, zehaztutako edozein bide erabili ahal izango da horretarako.

4. artikulua.

Hileta edo omenaldi zibilak egiteko eskaeren izapideak egoera horrek beharrezkoa duen berehalakotasun printzipioaren arabera arautuko dira, eta horretarako eskumena duen pertsonari igorriko zaizkio, ebazpena eman dezan.

5. artikulua.

Egingo diren eskaeretan honako datu hauek adierazi beharko dira:

- a) Ospakizuna egiteko baimena eskatzen duen pertsonaren izen-abizenak, helbidea eta identifikazioa.
- b) Hildako pertsonaren izen-abizenak eta Heriotza Ziurtagiria.
- c) Eskaeran hileta edo omenaldi zibila zein egunetan eta zein ordutan egin nahi diren adierazi behar da.
- d) Oro har, ospakizun hauek Zaldibiako Herri Antzokiaren aurreko plazan egingo dira. Eguraldiak lagunduko ez balu, Herri Antzokiaren barruan edo beste arrazoirentzat medio, dagokion arduradunak Zaldibiako Udalerrian egoki gerta litekeen gunen edo eraikin publiko bat izenda dezake zeregin horretarako.
- e) Administrazioak, ahal duen neurrian, eskaeran zehaztutako eguna, lekua eta ordua errespetatuko ditu, eta eskaerak egin diren ordena hartuko da kontuan horretarako. Ordena hori aldatu ahal izango da aparteko kasuetan eta horretarako arrazoi nahikoa dagoenean.
- f) Eskaera egin den lekua eta data.
- g) Eskatzailearen sinadura edo haren borondatearen egiazkotasunaren egiaztagiria, edozein euskarritan.
- h) Ekitaldiaren deskribapen laburra, eta beharko duten materialarena (megafonia, mahaiak, aulkiak, etab.)

CAPÍTULO I
OBJETO

Artículo 1.

La presente ordenanza tiene por objeto regular la autorización y utilización de locales municipales para la realización de funerales u homenajes civiles en el término municipal de Zaldibia por fallecimiento.

CAPÍTULO II
AUTORIZACION

Artículo 2.

Podrá autorizar el uso de cualquiera de los espacios reservados para los funerales u homenajes civiles el alcalde/ alcaldesa o concejal/concejala en quien delegue, previa recepción de la documentación que debe remitir la persona o familiar que dirija su solicitud al registro municipal del Ayuntamiento de Zaldibia.

CAPÍTULO III
INICIACION DEL PROCEDIMIENTO

Artículo 3.

Las solicitudes de realización de funerales u homenajes civiles, serán dirigidas a la Alcaldía del Ayuntamiento de Zaldibia, en cualquiera de las formas permitidas por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 4.

La tramitación de las solicitudes para la realización de funerales u homenajes civiles se registrará por el principio de inmediatez que requieren las circunstancias, siendo remitidas a la persona competente para su resolución.

Artículo 5.

Las solicitudes que se formulen deberán contener:

- a) Nombre, apellidos, domicilio e identificación de la persona que solicita la autorización de la celebración.
- b) Nombre y apellidos de la persona fallecida y el Certificado de Defunción.
- c) Indicar en la solicitud, día, la hora y el lugar de preferencia para la celebración del funeral u homenaje civil.
- d) Con carácter general, estas celebraciones se realizarán en la plaza contigua al Teatro Municipal de Zaldibia. Si las condiciones meteorológicas son adversas, el responsable municipal podrá designar para tales celebraciones tanto el Teatro Municipal como cualquier otro espacio u edificio público del municipio de Zaldibia que considere idóneo.
- e) La Administración atenderá en la medida de lo posible la preferencia de la solicitud en cuanto a fecha y hora, ateniéndose al orden de presentación de las solicitudes. Dicho orden podrá ser alterado en casos extraordinarios y siempre que se motive tal alteración.
- f) Lugar y fecha de la solicitud.
- g) Firma del o la solicitante o acreditación de la autenticidad de su voluntad por cualquier medio.
- h) Breve descripción del acto, y material que se vaya a necesitar (megafonia, mesas, sillas, etc.).

6. artikulua.

Eskaerak aurreko artikulua zehaztutako baldintzak betezen ez baditu, interesdunari lehenbailehen eskatuko zaio akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko, ekitaldiaren aurretik edo ondoren.

IV. KAPITULUA PROZEDURAREN INSTRUKZIOA EGITEA

7. artikulua.

Hileta edo omenaldi zibila egiteko eguna, lekua eta ordua Alkateak edo horren ordezkari zinegotziak zehaztuko du, Hirigintza Sailak xede horrekin espediente bideratu ondoren.

Instrukzioa eskaerak aurkeztu diren ordena zorrotzean egingo da, eta, bestalde, ahal den heinean, eskatzaile bakoitzak zehaztutako lehenbailehen ordena errespetatuko da. Aparteko eta presazko beharizan objektibo baten ondorioz, gerta daiteke eskaerak aurkezteko ordena ez errespetatzea. Dena den, aparteko eta presazko beharizan gertatzeko nahikoa arrazoiz izan beharko da, eta beren eskubideei eragiten zaienean pertsona horiei entzun egin beharko zaie.

8. artikulua.

Eskaera egin ondoren, Alkateak edo horren ordezkari zinegotziak hileta edo omenaldi zibila Udaleko zein gune edo lokalean egingo den erabakiko du; oro har, hileta edo omenaldi zibila Zaldibiako Herri Antzokiaren aurreko plazan egingo da. Aparteko izaeraz, beste lokal edo gune publiko batzuk erabiltzea baimendu ahal izango da.

9. artikulua.

Hileta edo omenaldi zibilak astelehenetik igandera ospatuko dira, eta beharrezko udal baliabideak zuzenduko dira zeregin horretarako.

10. artikulua.

Hileta edo omenaldi zibila ospatzeko ordutegia ondokoa izango da: 9:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 21:00etara. Zeremoniak, gehienez, berrogeita bost minutu iraungo du.

III. KAPITULUA ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

11. artikulua.

Udal lokalen zainketa egokia bermatzeko, zeremonian parte hartuko dutenek ez dute berorietan kalterik edo galerarik eragin dezakeen inolako ekintzarik egingo.

12. artikulua.

Hildakoaren senitartekoei edo adiskideei Zaldibiako Herri Antzokia edo zeregin horretarako gunea apaindu nahi badute edo modu bereziren batean egokitu nahi badute, aurrez eta nahikoa denboraz Udaleko arduradunari horren berri eman beharko diote, hartu beharreko erabakiak har ditzan; hala ere, lekuaren harmonia eta ezaugarriak errespetatu beharko dituzte beti, eta sor daitezkeen gastuak beren gain hartu beharko dituzte. Ekitaldia egiteko zerbitzu osagarriak interesdunaren kontura eta kargura izango dira, baina, betiere, Zaldibiako Udalak ikuskatu ahal izango ditu.

13. artikulua.

Eskaera egiten duen pertsonak hileta edo omenaldi zibila egiteko espazio publikoa erabili nahi badu, eskaeran hori ere zehaztu beharko du. Udalak erabili nahi den espazio publikoa hesituko du, lehenago zehaztutako eskubideak eta betebeharrak betetzen badira, betiere.

Artículo 6.

Si la solicitud no reúne los requisitos que señala el Artículo anterior se requerirá al interesado o interesada con la mayor urgencia posible para que con antelación al acto o posteriormente subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos.

CAPÍTULO IV INSTRUCCIÓN DEL PROCEDIMIENTO

Artículo 7.

La fecha, el lugar y la hora de celebración del funeral u homenaje civil será fijado por el alcalde/alcaldesa o concejal/concejala en quien delegue, previa tramitación del expediente correspondiente por la Comisión de Urbanismo.

La instrucción se efectuará con estricta sujeción al orden de presentación de las solicitudes y atendiendo asimismo, en la medida de lo posible, al orden de preferencias indicado por cada solicitante. Podrá no atenderse al orden de presentación de las solicitudes siempre que se den circunstancias objetivas de extraordinaria y urgente necesidad. todo caso, la extraordinaria y urgente necesidad deberá estar suficientemente motivada y deberá oírse a quienes han visto alterado su derecho.

Artículo 8.

A la vista de la solicitud, el alcalde/alcaldesa o concejal/concejala en quien delegue, designará el local o espacio público en el que haya de celebrarse el funeral u homenaje civil, que con carácter general será la plaza contigua al Teatro Municipal de Zaldibia. Con carácter extraordinario, se podrá autorizar la utilización de otros locales o espacios públicos.

Artículo 9.

Los funerales u homenaje civil se celebrarán de lunes a domingo, habilitando al efecto los recursos municipales necesarios.

Artículo 10.

El horario para la celebración de los funerales u homenaje civil será de 9 a 14 horas y de 17 a 21 horas. La ceremonia tendrá una duración máxima de 45 minutos.

CAPÍTULO III DERECHOS Y DEBERES

Artículo 11.

A fin de garantizar la buena conservación, los asistentes a la ceremonia se abstendrán de realizar cualquier acto que pueda suponer deterioro o menoscabo de las dependencias municipales.

Artículo 12.

Cuando las y los familiares y/o amistades deseen ornamentar el Teatro Municipal de Zaldibia o acondicionarlo de forma especial, deberán hacerlo saber al responsable municipal con la antelación suficiente para que resuelva lo que proceda, respetando siempre la armonía y características del lugar y siendo a su cargo los gastos que con este motivo se produzcan. Los servicios complementarios para la celebración del acto, los aportará la persona interesada e irán a su cargo sin perjuicio de la supervisión de los mismos por parte del Ayuntamiento de Zaldibia.

Artículo 13.

Si la persona que ha realizado la solicitud desea utilizar el espacio público para la celebración del funeral o del homenaje civil, deberá indicar dicha circunstancia en la solicitud. El Ayuntamiento acotará el espacio público que se desea utilizar, si es que se cumplen los derechos y obligaciones anteriormente citados.

14. artikulua.

Ordenantza honetan aurreikusten ez den edozein alderditarako, udal arduradunen aginduak hartuko dira kontuan.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Zaldibiako Udaleko Alkatetzari ordenantza hau aplikatzeko egin beharreko jarduketa guztiak egiteko ahalmena ematen zaio.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko testua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta Udaltzak berau aldatzeko edo indargabetzeko erabakia hartu arte izango da indarrean.

Artículo 14.

En todo lo no previsto en esta ordenanza, se deberán seguir las instrucciones de los responsables municipales.

DISPOSICION ADICIONAL

Se autoriza a la Alcaldía del Ayuntamiento de Zaldibia para la realización de las actuaciones necesarias en orden a la aplicación de la presente ordenanza.

DISPOSICION FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor el día siguiente al de la publicación del texto definitivo en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, permaneciendo en vigor hasta su modificación o derogación expresa que deberá acordarse por el Pleno del Ayuntamiento.